

BIHOTZEAN IXURIZ NAUKAZU EZTITAN

1

Badakit bazarana
sinismen-argitan,
baina nor ta zer zaran
zalantzak sarritan.
Buruz ulertu ezin
neke izerditan,
bihotzean ixuriz
naukazu eztitan.

2

Ni nor ta zer nazan Zeuk
bakarrik dakizu,
ez nik, ez beste inok
ez daki kontizu.
Bai, badakit zarana
Aita errukitsu,
seme nozu ta maitez
Zeugana nagizu.

3

Zein dohai ederra dan
kristau sinismena!
Nik ez daukat besterik
Seme Jesusena.
Berak sortu dau nigan
Zuganako sena:
Zeu zaitudala, Jainko
Aitarik amena.

4

Zugan bizi nazala
ta ezin ikusi,
amaren sabelean
seina lez biluzi.
Laster argiratzean
aske ta nagusi,
ziur Zugana noa
jarraituz Jesusi

5

Zugandik sortua naz
lurreko bizira,
eguzkiarengandik
maitezko distira.
Zeuk batuko gaituzu
zaran Eguzkira,
bat ere galdu barik
Zureak bai dira.

6

Izatez zaralako
hutsik maitasuna,
hagaitik ziur nago
Zuk maite nozuna.
Zeuganatu egizu
Zeuk sortu dozuna,
hau izango da bion
zorientasuna.

A. Martzel